



## EL DECANO

- EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN  
FAKULTATEK EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATERA:  
ETORKIZUNERA BEGIRAKO ALDAKETA -

**A**urtengo urtarrilaren 5az geroztik, ibilbide luzeko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultate maiteak Ekonomia eta Enpresa Fakultate berria osatu du gure Unibertsitateko enpresa ikasketetako hiru ikastegiaren batera. Modu horretan, lehengo ikastegiak fakultate berriko atalak eratu dituzte.

Horrenbestez, egun horretatik aurrera, Fakultate berrian emango dira eskola guztiak, eta bertan gauzatuko da, halaber, gure Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresen Zuzendaritzaren arloko ikerketa osoa. Izan ere, gure ustez, modu horretan izugarri hobetuko da hala graduako zein graduondoko irakaskuntza nola ekonomiaren eta enpresaren alorreko ikerkuntza. Ildo horretatik, are gehiago indartuko da lehengo ikastegiak euskal gizarteari orain arte bereiziz ematen zieten zerbitzu zabal eta egokia.

Dena dela, utziezaduzue une batez nire lehengo Fakultatera itzultzen (Sarrikoko atala da gaur egun) eta haren omenaldi gisa hitz hauek errepikatzen, zeintzuk gaur egun ikastegiko kide ez den baina alderdi askotatik loturik egon den norbaitek duela gutxi bere doktorego tesisko esker onen atalean jaso baitzituen:

“Sarriko, egiatan, familia handi bat da, tradizio beteko erakunde bat, Bilboko hiri aske eta liberalaren erdi-erdiaren kokatua. Sarrikoren balioak nire prestakuntzaren oinarri izan dira: zehaztasun intelektuala, ondo eginiko lanerako grina, etorkizuneko liderrak trebatzeko funtsezko erakundeak duen gizarte batenganako konpromisoa, gizarteari norik bere onena emateko betebeharrak, eta fanatismo ororen gaineko gaitzespena”.

Hitzok, esan dudan moduan, Sarrikoren omenaldia direnez, sortu berri den Fakultate berriaren espiritua ere adierazten dute, nik uste.

Hori lortzeko, baina, ahaleginak egiten jarraitu behar dugu, ekonomiaren eta enpresen arloan Euskadin eta munduan dauden egungo eta etorkizuneko erronka ugari eta garrantzitsuei aurre egiteko gai diren profesional gero eta hobeak treba dituzgun. Beraz, lan handia baina aldi berean gutzit gogobetegarria dugu esku artean, denon artean egiteko.

Hala, gogo betez eta buruan etorkizuneko proiektuak ditugula ekingo diogu ikastegi berriari, Buletinaren zenbaki honetako Fakultateari buruzko atalean ikusiko duzuen moduan.

Arturo Rodríguez



## Egresatu berrien inbestidura ekitaldia

Urtarrilaren 27an, Leioako Areto Nagusian, 2014/2015 ikasturtean graduatutakoek diplomak banatzeko inbestidura ekitaldia egin zen. Zehazki, gradu hauetako bigarren promozioak graduatu ziren: Ekonomia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Finantza eta Aseguruak, Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa, eta Marketina. Halaber, diplomak eman zitzaizkien, berrehundik gora guztiara, Ekonomiako 56. promozioko lizentziadunei, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako 56. promozioakoei, Aktuariotza eta Finantza Zientzietako 18. promozioakoei eta Merkatu Ikerketa eta Tekniketako 12. promozioakoei. Diploma horiez guztiez gain, graduoko

zazpi sari berezi banatu ziren, eta aipamen berezia egin zitzaion espediente akademikorik onenari.

UPV/EHUko errektore Iñaki Goiri-zelaiaik zuzendu zuen ekitaldia, eta harekin batera izan ziren presidentetza mahaian Arturo Rodríguez, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa; Cristina Uriarte, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua; Iñaki Ruiz, Ekonomisten Euskal Elkargoko burua; eta Leire Barañano, Azti-Tecnaliako Elikagai Ikerketako Unitateko balio arloko zuzendaria, promozio honetako ohorezko amabixia, eta duela oso gutxi Fakultateko irakasle eta ikasle

izandakoa.

AZTI itsasoaren eta elikagaien ikerketan espezializaturiko zentroko balio arloko zuzendariak egresatuei azaldu zien, alde batetik, zeinen garrantzitsua den berrikuntza enpresarentzat eta bezeroentzat balio erreal bihurtzen duten palankak zein diren jakitea, eta, bestetik, nola kudeatu behar den berrikuntza eta berrikuntzak nola sor dezakeen bezeroentzako balio bereizgarria.

Alvaro Domínguez eman zitoten UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Ekonomia Graduoko ziklo osoko espedienterik onenaren lehen sari berezia.

## Fakultate berriak bere bideari ekin dio

Aurtengo urtarrilaren 5az geroztik, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak Ekonomia eta Enpresa Fakultate berria osatu du gure Unibertsitateko enpresa ikasketetako hiru ikastegiaren batera. Modu horretan, lehengo ikastegiak fakultate berriko atalak eratu dituzte.

Ikastegi berri eta konplexu horrek, Elkano atalari esker, berrehun urte egingo ditu aurki. Kide ugari ditu, gainera: 6.300 ikasle baino gehiago, 450 irakasle eta administrazio eta zerbitzuak 90 pertsona baino gehiago. Sei titulazio ematen ditu, eta titulazio horiek guztiek aise gainditu dute, duela gutxi, Unibertsitate Euskal Herriko unibertsitate ebaluaziorako

agentiaren akreditazio prozesua. Bertan ematen da, gainera, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko gradu bikoitza, zeinak hirugarren urtea baitu aurtengoa.

Otsailaren 11n, ikastegi berriaren behin-behineko Fakultateko Batzarrak aurreneko saioa egin zuen, eta hala Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultate zaharreko batzarkideak nola enpresa ikasketen lehengo eskoletako batzarratako ordezkariak bertaratu ziren. Biler horretan erabaki garrantzitsuek hartu zituzten; besteak beste, erabaki zuten hasiera emateko Fakultate berriaren araudia osatzeko prozesuari. Orainxe bertan prozesu horretan ari dira, eta, amaitu ondoren, Fakultateko

Batzar berria hautatuko da, behin betikoa, eta hark Dekanotzarako hauteskundeak iragarriko ditu.

Horrez gain, Fakultate berri honek proiektu handiak ditu dagoeneko. Kasurako, datorren ikasturtean, 2016/2017an, bi master titulazio berri eskainiko ditu, ikasleei lanerako gaitasun espezifikoko irakasteko: Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitate Masterra, eta Aktuariotza eta Finantza Zientzien Masterra. Halaber, Ekonomiako eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradu bikoitza oso-osorik ingelesez eskaintzeko aukera aztertzen ari dira.

Arturo Rodríguez



## Historia Ekonomikoa irakasgaiko landa ikerketa

Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak Saileko irakasle Elena Catalánek iturri primarioek historia ekonomikoa izandako erabilera-aren gaia jorratu du, ikasleak eza- gutza historikoa eraikitzeke lanera gerturatzeko. Horretarako, 2016ko otsailaren 4an, AHEB-BEHA Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboaren funtsak kudeatzeko arduradun Cristina Castillók ikasgela partekatuko saio batean esku hartu zuen lehen mailako 16. eta 17. taldeekin. Saio horretan, ikasleei azaldu zitzaizen artxibo historikoak funtsezkoak dira ikerkuntzarako; kasu honetan, Bizkaian industria aurreko ekonomien aldagai demografikoez izan zuten bilakaerari buruz ikertzeko. Ildo horretatik, irakasgaian proposaturiko praktikarako iturri baliagarriak izan ziren XVI. mendetik XIX. era bitarteko bataio, ezkontza eta heriotza erregistro sakramentalen irudiak, formulario sinodalak, agiri bitxiak, heriotza kausen nomenklatura eta sailkapena...

Jarduera hori Europako CO:OP: The creative archives and users' network proiektuaren harira antolatu da, WP4: Creative-Pedagogical approaches to open archives atalaren barruan. Ikasleen artean izan duen harrera bikaina ikusirik, espero dugu datozen urteetan ere berririo antolatu ahal izatea.

Elena Catalán



## Ikerketa saritua



AGERS Arriskuen eta Aseguruen Kudeaketarako Espainiako Elkarteak arriskuen kudeaketari buruzko mundu osoko ikerketa monografiaren IV. Julio Sáez Saria eman dio J. Iñaki De la Peña Esteban eta Robert Ugalde Zabala UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Finantza Ekonomia I Saileko irakasleek egindako "Modelo de gestión integral de riesgos para el sector atunero" ikerlanari.

Azterlanaren egileek atun itsasontzi izoztaileen 26 arrisku aurkitu dituzte, eta egoera horiei aurre egiteko baliabideak ezarri. Lana atun itsasontziei begira egin dute batik bat, baina azterlanaren zati handiengan enpresa mota orotan gertatu ohi diren arriskuak landu dituzte. Enpresa guztiek izan ohi dituzten arriskuak batzuk dira, adibidez, ospaeren arriskua, taminarena, legeari dagokiona... Beste arrisku batzuk,

berriz, askoz ere mediatikoagoak dira, eta, zoritxarrez, sarriago zabaltzen dira: esaterako, itsaslapurretaren arriskua, ontzi horiei Indiako Ozeanoko uretan arrantzan dabiltzanean baino eragiten ez diena.

Nazioarteko saria lortu duen ikerlan hori Mapfre fundazioak diruz lagunduriko proiektu baten parte da. Proiektua ikusgai dago hemen: [https://www.fundacionmapfre.org/fundacion/es\\_es/seguero-prevision-social/publicaciones/cuadernos-fundacion/cuadernos-recientes/gestion-riesgos-sector-atunero.jsp](https://www.fundacionmapfre.org/fundacion/es_es/seguero-prevision-social/publicaciones/cuadernos-fundacion/cuadernos-recientes/gestion-riesgos-sector-atunero.jsp).

Liburu hori "Atuneros congeladores vascos. Un sector de relevancia económica mundial" lanaren aurrekoa da, Robert Ugaldek 2014an idatzirikoa, eta labor azaltzen du itsasontzi horien historia. Liburuak agerian jarri zuen, bestek beste, atun itsasontzi izoztaileen mundu osoko flotaren ia % 10 euskal enpresek kontrolatzen dutela.

## Marketin graduko 2. mailako ikasleek Tecnalieren KUBIK eraikinera egindako bisita

El día 1 de Febrero de 2016, los estudiantes de 2º de Grado en Marketing, como actividad programada en la asignatura Decisiones de Producto y Precios, acudieron al edificio de pruebas que tiene la corporación Tecnalía, ubicado en el Parque Tecnológico de Zamudio.

Técnicamente es un edificio de desarrollo de soluciones integrales para

optimizar la eficiencia energética de los edificios. La visita, guiada por la Responsable Científica del KUBIK, Inés Apraiz Egaña, dio oportunidad de contar con una enriquecedora explicación in situ de varias etapas del proceso que siguen en el desarrollo de estos nuevos productos. Éste era el tema con el que daba comienzo la asignatura, segundo cuatrimestre, en el marco de un Aprendizaje Basado en Proyectos

(ABPy). La visita de los estudiantes a la infraestructura experimental KUBIK, acompañados por su profesora Gloria Aparicio, ha sido uno de los recursos de aprendizaje que ayudaron a dar comienzo al desarrollo del temario y del proyecto que cada grupo de alumnos y alumnas ha realizado a lo largo del cuatrimestre.

Gloria Aparicio

## Klaus North, ekintzaile izateko oinarriak

Klaus North doktorea "Gestión del conocimiento" hitzaldia eman zuen apirilaren 6an UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Areto Nagusian, ekintzailetza proiektu bat abiatzeko eta proiektuok bideragarriak diren aztertzeko zazpi printzipio funtsezkoak zein diren azaltze aldera. North doktorea Enpresen Nazioarteko Administrazioko katedraduna da Alemaniako Wiesbaden Business Schoolen, eta aholkulari aritzen da ezagutzaren kudeaketari, kalitateari eta berrikuntzari buruzko kontuetan mundu osoko erakundeentzat, gobernuentzat eta enpresa handientzat.

Northen hitzetan, ekintzailetza proiektu bati ekiteko, ikaskuntza prozesu bat behar da aurretik. Merkatura jo baino lehe-

nago, ikerketa proiektuaren hasiera-hasieratik ulertu behar dira merkatuaren mundua, bezeroak, administrazioaren arauak eta finantza arloko interesak. Kontua da jakitea ezagutza nola eralda daitekeen bezeroei balio bereizgarria emango dieten produktu eta zerbitzuak sortzeko.

Klaus Northek Ingeniaritza Mekanikoko ikasketak eta Industria eta Ingeniaritzako eta Ergonomiako doktoregoa egin zituen Darmstadtoko Teknologia Unibertsitatean, Alemanian. Bere lan ibilbide zabalean, Northek Eusko Jaurilaritzaren aholkulari jardun du kalitate politiken esparruan, eta Nazioarteko Lan Erakundeko funtzionario aritu da Latinoamerikan eta Genevako egoitzan, erakunde horren enpresak kudeatzeko programen arduradun gisa.



# Enpresari eta Generoari buruzko I. Jardunaldia

Apirilaren 18an, Sarrrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Enpresari eta Generoari buruzko I. Jardunaldia antolatuta zen, "Enpresa praktika onak berdintasunaren arloan". Izan ere, ikusi zen beharrezkoa dela unibertsitatek bertatik egitea genero ikuspegia enpresetan txertatzeko ahalegina. Unibertsitateko kide ugari eta hainbat profesional izan ziren jardunaldian.

Jardunaldian izan ziren, halaber, Maitane Urbietako erakundeetako berdintasunaren arloan aditua eta Eraberria aholkularitza enpresaren sortzailea; Ana Armesto, abokatu eta ekonomialaria, coach exekutiboa eta Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteko kidea; eta Marta Carazo, Eroski Kooperatiba Sozietatearen Berdintasun Behatokitiko kidea eta gizarte kudeaketarako zuzendaria.

Hizlariak hainbat alderdi landu zituzten enpresa erakundeetako berdintasunaren arloan nola jardun azaltzeko, eta esparru horretako aurrerapenez zein gabeziez aritu ziren halaber. Azpimarratu zuten garrantzitsua dela genero ikuspegia txertatzea enpresetan, hala gizartearen ikuspuntutik nola enpresaren beraren ikuspuntutik. Era berean, nabarmendu zuten funtsezkoa dela gai horren inguruko legeria egokia eta nahitaez bete beharrekoa izatea. Ildo horretatik, berdintasunaren arloan har daitezkeen hainbat neurriren adibideak jarri zituzten, Eroski kooperatibaren esperientzia oinarri hartuta.

Jardunaldia amaitzeko, partaideek solasaldi ireki bat egin zuten eta etorkizuneko edizioetan parte hartzeko deia ere egin zen.

*Itziar Villafañez*



# Ikerketako II Jardunaldiak ospatu dira



Joan den otsailaren 9an Ekonomia eta Enpresa Fakultateko II. Ikerketa Jardunaldia egin zuten. Iaz izandako arrakasta ikusirik, fakultateko sailek, dekanatu taldearen laguntzaz, aurten berriro antolatu dute topaketa, eta gure ikastegian lantzen den ikerketaren zenbait adibide aurkeztu eta eztabaidatu dira bertan. Helburua argia da: ikerketa are gehiago hedatzea irakasleen artean eta fakultatean ikertzen duten taldeen artean sinergiak sortzen laguntzea.

Jardunaldia bi saiotan egin zen, eta guztira zortzi hitzaldiren inguruan eztabaidatu zen. Goizeko saioan, Ekonomia Analiaren Oinarriak II Saileko Luis Millerrek "The moral consequences of becoming unemployed" izeneko testua aurkeztu zuen. Jarraian, Enpresa Zuzenbidearen Saileko Itziar Villafañezek kooperatiben gobernu onari eta leialtasun beharri buruzko hitzaldia eman zuen, eta Finantza Ekonomia II Saileko Txomin Iturraldeak, berriz, familia enpre-

sen kudeaketaren inguruko ikerkuntza izan zuen mintzagai. Azkenik, Ekonomia Analiaren Oinarriak I Saileko Nagore Iribarrenek itxi zuen lehen saioa, "What you know can't hurt you (for long): A field experiment on relative performance feedback in higher education" hitzaldiarekin. Gero, arratsaldeko saioan, Historia eta Ekonomia Erakundeak Saileko Jesús M<sup>o</sup> Valdalisok eman zuen aurreneko hitzaldia: "Do clusters follow the industry life cycle? Diversity of cluster evolution in old industrial regions". Jarraian, Ekonomia Aplikatua V Saileko Josu Ferreirok "Crisis Económica y Convergencia en la eurozona" izeneko ikerketaren emaitzak aurkeztu zituen, eta, azkenik, Ekonomia Aplikatua II Saileko Waleska Sigüenzak amaiera eman zion jardunaldiari, "Valoración económica de los servicios sanitarios" hitzaldiarekin.

*Ernesto López Losa*

# Martxoaren 8a Fakultatean

Fakultateko Berdintasun Batzordeak martxoaren 8a ospatu du, emakumeen nazioarteko eguna, bertako atal guztietan. Hala, berretsi egin du gure ikastegiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko daukan konpromisoa.

Silvia Federiciren "Maitasuna esaten dioten horri ordaindu gabeko lana deitzen diogu guk" esaldia ardatz hartuta, eta laneko genero desberdintasunari buruzko informazioa emanez ikuspegi historiko eta kuantitatibotik, Berdintasun Batzordeak aukera eman zien unibertsitateko kideei euren iritzia azaltzeko

Fakultateko Hallean eta Miguel Angel Blanco eraikinaren sarreran jarritako bi karteletan. Ordaindu gabeko etxeko lanaren prezioaz jabetu beharra daukagu, eta, ildo horretatik, gure ikasleek gizartearen antolamendua aldatzen lagundu behar dute.

Ekintza hori, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren ospakizuna eta iaz egindako Emakumea eta Zientzia erakusketa izan dira Berdintasun Batzordeak ikasturte honetan egin dituen jendaurreko ekitaldi nagusiak.



## CONFEDek Bilbon eginiko bilera

2015eko abenduaren 3an eta 4an, CONFEDe Ekonomia eta Enpresako Dekanoen Biltzarrak osoko bilera egin zuen Bilbon, UPV/EHUko Bizkaia Areatoan. UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak antolatu zuen saioa, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak, Bilboko Udalak eta Ekonomisten Euskal Elkargoak lagundurik.

CONFEDe dekanoen biltzarra 1998an eratu zen formalki, Albaceten, eta Ekonomiaren eta Enpresaren arloko gradu ikasketak irakasten dituzten estatuko unibertsitateetako fakultateetako dekanoei osatzen dute. Egiteko hauek ditu, besteak beste: fakultateen arteko lankidetzaren sustatzea, interes orokorreko informazioa transmititzea, eta fakultateei eragin diezaieketen gaien inguruko iritzi kolektiboa adieraztea. Ildo horretatik, CONFEDek bi osoko bilera egiten ditu urtean (udaberriaren eta udazkenean), biltzarreko kide den fakultateetako batean, oro har.

Bilboko saioan 100 ordezkari baino gehiagok parte hartu zuten, eta han biltutako ikastegiarentzako gai interesgarri eta erabakigarriak landu zituzten. Gure Fakultateko eta UPV/EHU osoko jende asko bertaratu zen.

Alfonso Davalillo UPV/EHUko Kalitateko zuzendariak ikastegiaren kudeaketari eta kalitatea bermatzeko sistemei buruzko hitzaldi bat eman zuen.

Halaber, gure lankide Carlos Rodríguez Nazioarteko Harremanetako dekanordeak hitzaldia eman zuen Ekonomia eta/edo Enpresako nazioarteko titulazio bikoitzei buruz. Gainera, gure lankide Azucena Vicente irakasleak "Formación curricular en diseño para todas las personas" azterlana aurkeztu zuen, Enpresen Administrazioari eta Zuzendaritzari buruzkoa; azterlanean esku hartu eta lagundu dute ONCE Fundazioak eta CRUE Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Biltzarrak.



Bestalde, gure lankide Txomin Iturralde irakasleak, AEDEM Enpresaren Zuzendaritza eta Ekonomiarako Europako Akademiako presidenteordeak, akademia horren jardueren berri eman zuen, eta etorkizunean erakunde bien arteko harremana indartzeko aukeraz aritu zen.

Espainiako graduko unibertsitate ikas-

keten iraupena ere izan zuten hizpide biltzarrean, eta interes zabala sortu zuen horrek, 180 eta 240 kreditu arteko iraupena liberalizatu duen Dekretua dela eta. Horren harira, graduko eta masterreko titulu ofizialak akreditatzeko prozesu berriei buruz ere jardun zuten.

Arturo Rodríguez

## Udalak ingurumenaren arloan egindako ahalegina aitortu dio Fakultateari

Azken urte honetan, gure Ikastegiak parte hartu du Bilboko Udalak Bilbao Ekintza udal sozietatearen bidez sustatzen duen "Karbono gutxiko estrategia baterantz Bilbon 2015" programaren IV. edizioan.

Martxoaren 14an, dekano jaunak, beste 40 enpresa eta erakunderekin bate-

ra, Ikastegiak garapen iraunkorarekin duen konpromisoari buruzko plaka bat jaso zuen Bilboko alkate Juan Mari Aburtoren eskutik, Bilboko Udaleko Arabiar Areatoan. Alkateak, halaber, oroi-garrizko artelan bat eman zion, PEFC zigiluarekin (zigilu horrek adierazten du gizartearekin eta ingurumenarekin

arduraz jokatzeko kudeaturiko basoko zurez eginda dagoela). Bi oroigarriak, plaka zein artelana, Euskadiko radiata pinuaren zurez eginda daude.

Gure Ikastegiak helburu zuen gure erakundeak zenbaterako "karbono aztarna" duen jakitea eta, ahal izanez gero, aztarna hori txikitzea. Horretarako,

berotegi gasak zein iturritatik isurtzen diren aztertu behar izan da. Karbono aztarna kalkulatzeko onura handiak ematen ditu; besteak beste, energia aurrezten da eta baliabideak optimizatzen dira.

Azterlan horren ondorioz, eta Ikastegiaren 2016ko Ingurumen Planaren barruan, energia aurrezteko politika bat ezarri da. Hala, pixkanaka-pixkanaka luminariak kendu eta LEDak jarri dira, eta, gainera, presentzia detektagailuak eta erloju astrofisiko bat ere instalatu dira, ingurumena gehiago zainduko duen kontsumo arrazoizkoago bat lortze aldera. Alde batetik, energia elektrikoaren kontsumoa txikituko da, eta, beraz, CO2 gutxiago igorriko da atmosferara; bestetik, hondakin gutxiago sortuko da, ekipa mota horrekin lanparen batez besteko iraupena luzatzen baita. Era berean, energia aurrezteko ahaleginarekin bat, Ikastegiak lanean jarraitzen du hondakinak murrizteko politika ezartzen eta hondakinak behar bezala banatzen. Horri dagokionez, idazteko tresnak birziklatzera bidali dira lehenengoz, TerraCycle enpresaren bitartez. Haiek, trukean, diru kopuru txiki bat ematen diote GKE bati; gure kasuan, Mugarik gabeko Ekonomistak erakundeari.

